



OLATZ GARAMENDI LANDA, CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y SECRETARIA DEL GOBIERNO

CERTIFICO:

Que el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 7 de junio de 2022, adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

ACUERDO POR EL QUE SE AUTORIZA LA SUSCRIPCIÓN DE UN CONVENIO DE COLABORACIÓN CON EL AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, PARA LA GESTIÓN DE LA AYUDA Y EJECUCIÓN DEL PLAN DE SOSTENIBILIDAD TURÍSTICA EN DESTINO, Y SE AUTORIZA LA CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN DIRECTA PARA LA EJECUCIÓN DEL PSTD DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, CORRESPONDIENTE AL PLAN TERRITORIAL DE SOSTENIBILIDAD TURÍSTICA EN DESTINO DE EUSKADI, ENMARcado EN EL PLAN DE RECUPERACIÓN, TRANSFORMACIÓN Y RESILIENCIA FINANCIADO POR LA UNIÓN EUROPEA- NEXT GENERATION UE. (EXP. 2022/00523) (C/20220058)

El 21 de julio de 2020, el Consejo Europeo adoptó las Conclusiones sobre el Plan de Recuperación y el marco financiero plurianual para 2021-2027. Estas medidas aúnan el marco financiero plurianual (MFP) para 2021-2027, reforzado la puesta en marcha de un Instrumento Europeo de Recuperación («Next Generation EU»), cuyo elemento central es el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia, establecido por el Reglamento (UE) 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de febrero de 2021.

La instrumentación de la ejecución de los recursos financieros del Fondo Europeo de Recuperación se realizará a través del Plan de Recuperación Transformación y Resiliencia, aprobado por Acuerdo del Consejo de Ministros de 27 de abril de 2021, y de conformidad con lo establecido por la Decisión de Ejecución del Consejo relativa la aprobación de la evaluación del plan de recuperación y resiliencia de España (Council Implementing Decision- CID), de 13 de julio de 2021.

Dentro del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR), como parte del Componente 14, se ha incluido la línea de inversión de Transformación del modelo turístico hacia la sostenibilidad, que incluye el Programa de Planes de Sostenibilidad



Turística en Destinos como submedida 2 de la inversión 1 (C14.I1), en tanto que mecanismo de actuación cooperada entre los tres niveles de la Administración.

Este programa financia proyectos cuyos créditos serán objeto de territorialización. Además, con base en la Estrategia de Sostenibilidad Turística en Destinos, fija las condiciones de participación de las comunidades autónomas y las entidades locales, los ámbitos de aplicación, los umbrales mínimos de inversión, el procedimiento de presentación de las propuestas y las reglas para su aprobación, ejecución y justificación.

El objetivo perseguido relativos a la línea de inversión C14.I1 es implementar actuaciones de impulso de la sostenibilidad turística contempladas en la submedida 2, los Planes de Sostenibilidad Turística en Destinos, en su triple vertiente: medioambiental, socioeconómica y territorial, a fin de beneficiar a los destinos turísticos, a los agentes sociales y a los operadores privados del sector.

De acuerdo al procedimiento establecido en la Estrategia de Sostenibilidad Turística en Destino aprobada en la Conferencia Sectorial de 28 de julio de 2021, el Departamento de Turismo, Comercio y Consumo elaboró el Plan Territorial de Sostenibilidad Turística en Destino (PSTD).

Tras la apertura de la convocatoria y la remisión de los PSTD en el plazo establecido, las propuestas de PSTD y de Actuaciones de Cohesión entre Destinos (ACD) fueron valoradas por

parte de las comunidades autónomas y de la Secretaría de Estado de Turismo (SETUR), de acuerdo a criterios objetivos establecidos en la propia Estrategia.

Posteriormente, el Departamento de Turismo, Comercio y Consumo de Gobierno Vasco y SETUR compartieron en sesión formalmente convocada el 27 de octubre de 2021 del Comité Consultivo de Euskadi, las valoraciones de las intervenciones propuestas para esta convocatoria 2021. Finalmente, se elaboró la propuesta de Plan Territorial de Euskadi que incluye los PSTD y ACD que, habiendo obtenido una nota superior a 70 sobre 100 con base en los criterios de valoración recogidos, encajaban en la planificación turística territorial atendiendo al marco del reparto presupuestario asignado para 2021 a la Comunidad Autónoma de Euskadi, teniendo en cuenta su contribución a la cohesión territorial y detallando su justificación y coherencia.

El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián concurrió a la convocatoria extraordinaria de Planes Territoriales de Sostenibilidad Turística en Destino, presentando un proyecto bajo el título de “PSTD de Donostia-San Sebastián” siendo una de las categorías de destino recogidas en la convocatoria y estableciendo la inversión mínima por ejes que recoge la misma.

Dicha propuesta de Plan fue valorada tanto por el Departamento de Turismo, Comercio y consumo de Gobierno vasco, como por SETUR, habiendo obtenido una nota superior a 70 sobre 100 en base a los criterios de valoración, siendo aprobado y formando parte del plan Territorial de Sostenibilidad Turística de Euskadi. El PTSTD de Euskadi fue aprobado por Resolución de 23 de diciembre de 2021, de la Secretaría

de Estado de Turismo, por la que se publica el Acuerdo de la Conferencia Sectorial de Turismo de 21 de diciembre de 2021.

Para alcanzar los citados objetivos, se hace necesario establecer fórmulas basadas en la colaboración efectiva entre las Administraciones, de ahí que se vehicule a través de convenios de colaboración con las entidades locales y Agencias de desarrollo comarcal, concurriendo además en el presente caso, una conjunción de actuaciones de competencia e interés de ambas partes para la consecución de fines y objetivos coincidentes.

Estas subvenciones, por tanto, se otorgarán en régimen de concesión directa, atendiendo a su carácter singular por su interés público, económico y social y su vinculación al cumplimiento de los hitos y objetivos del PRTR, al amparo de lo dispuesto en el artículo 49.7 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, artículo 22.2.c) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, así como el artículo 67 de su Reglamento, aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.

A la vista de la memoria justificativa y la propuesta del Consejero de Turismo, Comercio y Consumo, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente,

ACUERDO

«**Primero.** - Aprobar la concesión de una subvención directa por razones extraordinarias de interés público y social de 4.400.000 euros al Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián para la ejecución del Plan de Sostenibilidad Turista en Destino “PSTD de Donostia-San Sebastián” en el marco del Plan Territorial de Sostenibilidad Turística en Destino de Euskadi, financiado con cargo a Fondos Next Generation EU, y con ello contribuir al cumplimiento de los Hitos y Objetivos 217, 220 y 221 de la decisión de ejecución del Consejo de aprobación de la evaluación del PRTR.

Segundo. - La subvención se otorgará con cargo al programa presupuestario denominado Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (programa 1228, subprograma 12281) y a la aplicación presupuestaria 1001211000 1.12281.72100 2022/001754.aplicación presupuestaria.

Tercero. - El importe tendrá carácter de pago anticipado y único pago, y se efectuará una vez suscrito el convenio anexo, tras verificar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la seguridad social. La cuantía a abonar se concreta en 4.400.000 euros, atendiendo al crédito destinado a la entidad local en el Acuerdo de la Conferencia Sectorial de Turismo de 21 de diciembre de 2021.

Cuarto. - Autorizar la suscripción del convenio de colaboración entre la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el

Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, en los términos del texto que figura como Anexo al presente acuerdo.

Quinto. - Autorizar al Consejero de Turismo, Comercio y Consumo para suscribir el convenio y prestar el consentimiento en nombre de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco para suscribir el convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Donostia- San Sebastián que figura como Anexo al presente acuerdo.

Sexto. - El objeto del presente convenio es canalizar la subvención directa destinada a la realización de todas las actuaciones contempladas en el Plan de Sostenibilidad Turística en Destino del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, integrado en el Plan Territorial de Sostenibilidad Turística de Euskadi y con ello contribuir al cumplimiento de los Hitos y Objetivos 217, 220 y 221 de la decisión de ejecución del Consejo de aprobación de la evaluación del PRTR.

Séptimo. - El órgano encargado de la gestión de la subvención será la Dirección de Turismo y Hostelería, quedando facultada la misma para adoptar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Acuerdo, así como para el establecimiento de condiciones adicionales que aseguren el buen fin del mismo».

ANEXO

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación, en Vitoria-Gasteiz, en la fecha de su firma digital.

HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN (TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAREN BITARTEZ) ETA DONOSTIAKO UDALAREN ARTEKOA, DONOSTIAKO HELMUGAKO TURISMO JASANGARRITASUNEKO PLANA GARATZEKO, EUSKADI HELMUGAKO TURISMO JASANGARRITASUNEKO LURRALDE PLANARI DAGOKIONA, NEXT GENERATION EU-EUROPAR BATASUNEKO FUNTSEKIN FINANTZATUA.

_____(e)n, 2022ko ____ (a)ren ____ (e)(a)n

BILDU DIRA

Batetik, Javier Hurtado Domínguez jauna, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua, lehendakariaren irailaren 7ko 30/2020 Dekretuaren bidez izendatua (2020ko irailaren 8ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ordezkatzuz, eta hitzarmen hau formalizatzeko baimena duena Gobernu Kontseiluaren 2022ko ekainaren 7ko erabakiaren bidez.

Bestetik, Eneko Goia Laso jauna, Donostiako Udaleko alkate-udalburua, erakunde hori ordezkatzuz, hitzarmen hau sinatzeko ahalmena duena, ____ (e)ko data duen Tokiko Gobernu-Batzarraren erabakia dela bide; udaleko Osoko Bilkurari horren berri emango zaio.

Alderdiek dagokien ordezkaritza aitortu diote elkarri, eta hitzarmen hau emateko nahikoa legezko gaitasun dute; horiek horrela,

ADIERAZTEN DUTE:

LEHENA.–

2020ko uztailaren 21ean, Europar Kontseiluak Suspertze Planari buruzko Ondorioak eta 2021-2027 aldirako urte anitzeko finantza-esparrua onartu zituen. Neurri horiek osatzen dute 2021-2027 aldirako urte anitzeko finantza-esparrua (UAFE), europar suspertze-tresna bat («Next Generation EU») martxan jartzea indartuz; tresna horren elementu nagusia Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan ezarritakoa.

Europako Suspertze Funtsaren finantza-baliabideak Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren bidez garatuko dira; Ministro Kontseiluaren 2021eko apirilaren 27ko Erabakiaren bidez onartu zen, bat etorriz Kontseiluaren Betearazpen Erabakiak, 2021eko uztailaren 13koak, Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruz ezarritakoarekin (Council Implementing Decision- CID).

Espainiako gobernuak abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua eman zuen, zeinaren bidez presako neurriak onartu baitziren Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana egikaritzeko; bidenabar, HFP/1030/2021 Agindua ere eman zuen, irailaren 29koa, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen zuena, eta HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarren eta helburuen betetze-mailaren eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko.

BIGARRENA.-

Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean (STEP), 14. Osagaian dago jasota turismo-eredua jasangarritasunera eraldatzeko inbertsio-lerroa; lehen inbertsioaren bigarren azpineurri gisa (C14.I1) Helmugetako Jasangarritasun Planen programa ageri da; alegia, administrazioaren hiru mailen artean lankidetzan jarduteko mekanismoa. Programa honek finantzatzeko dituen proiektuetako kredituak lurraldeka bereiziko dira. Gainera, Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Estrategian oinarrituz, toki-erakundeek eta autonomia-erkidegoek parte hartzeko baldintzak finkatzen ditu, hala nola aplikazio-eremuak, inbertsioen gutxieneko atalaseak, proposamenak aurkezteko prozedura eta onartzeko, egikaritzeko eta justifikatzeko arauak.

Lurralde-planak parte hartzeko prozesu baten bidez eta hiru administrazio publiko eskudunen eta helmugako turismo-ekosistemako eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzaz prestatzen dira.

C14.I1 inbertsio-lerroan lortu nahi den helburua da bigarren azpineurrian (Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Planak) jasotako turismo-jasangarritasuna sustatzeko jarduketak ezartzea, hiru alderdietan: ingurumena, sozioekonomia eta lurraldea, turismo-helmugen, sektoreko eragile pribatuen zein gizarte-eragileen mesedetan.

HIRUGARRENA.-

2021eko uztailaren 28ko Konferentzia Sektorialean onartutako Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Estrategian ezarri zen prozedurarekin bat etorriz, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Euskadiko Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Plana (EHTJLP) prestatu zuen, jarraian adieraziko dena.

Deialdia egin ondoren, eta Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planak (HTJP) ezarritako epean igorri eta gero, autonomia-erkidegoek eta Turismo Estatu Idazkaritzak HTJPen proposamenak eta Helmugen arteko Kohesio Jarduketak (HKJ) aztertu zituzten, estrategian bertan ezarritako irizpide objektiboen arabera.

Ondoren, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Turismo Estatu Idazkaritzak 2021eko deialdi horretan proposatutako esku-hartzeen balorazioa egin zuten, hain zuzen ere 2021eko urriaren 27an deitutako EAEko Aholku Batzordearen saioan; aipatutako batzordea Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko bi kidek, Turismo Estatu Idazkaritzako bi kidek eta EUDELeko kide batek osatzen dute. Bileran horretan txosten bat aurkeztu zen; txostenean, jasotako HTJP eta HKJ guztiak eta esku-hartze horietako bakoitzari esleitutako puntuazioak laburbildu ziren. Aholku Batzordearen deialdi horretara HTJP bat aurkeztu duen turismo-nortasuneko hiri edo helmuga bakoitzeko ordezkari bana gonbidatu zen, hitz egiteko aukerarekin baina bozkatzeko aukerarik gabe.

Azkenik, EAEko Lurralde Planaren proposamena landu zen, barne hartuta balorazio-irizpideetan oinarrituz 100 puntutik 70 edo gehiago lortu zituzten eta turismo lurralde-plangintzara hobekien egokitzen ziren HTJPk eta HKJk, aintzat hartuta 2021. urterako Euskal Autonomia Erkidegoari esleitutako aurrekontuaren banaketa-esparrua eta lurralde-kohesioari egingo zaion ekarpena, eta justifikazioa eta koherentzia zehaztuta, bai esku-hartzeen arteko (HTJP eta HKJ) loturari dagokionez, bai esku-hartze bakoitzak erkidego- zein estatu-mailako turismo-

estrategiekin eta strategiaren helburu orokor eta zehatzekin dituen sinergia eta bat-etortzei dagokienez.

LAUGARRENA.-

Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2021eko abenduaren 23ko Ebazpenak argitara eman zuen Turismoko Konferentzia Sektorialaren 2021eko abenduaren 21eko Erabakia. Erabaki horretan finkatu ziren tokiko erakundeen inbertsio-jarduketak finantzatzera bideratutako kredituaren banaketa-irizpideak, eta horien ondorioz autonomia-erkidego bakoitzari zegozkion funtsak, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren 1. Inbertsioaren 14. Osagaiaren esparruan egindako inbertsioei zegokienez. Orobat, ebazpen horretan ezarri zen Turismoko Konferentzia Sektorialak, 2021eko uztailaren 28ko bileran, gai-zerrendarekin bat, berretsi egin zuela Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Estrategia onartzea, Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Programaren esparruan.

2021eko abenduaren 21eko Konferentzia Sektorialaren Erabakiak, onartutako banaketa-irizpideak aintzat hartuz, adierazi zuen Euskal Autonomia Erkidegoari orotara 24,13 milioi euro zegozkiola.

BOSGARRENA.-

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak, Euskal Autonomia Erkidegorako Autonomia Estatutua onartu zuenak, 10.36 artikuluan turismoaren gaineko eskumen eskusiboa eman zion Euskal Autonomia Erkidegoari.

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, kendu eta aldatzeko prozedurak eta horien funtzioak eta jarduketa-eremuak zehaztekoak, 15. artikuluan ezartzen du Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari dagokiola, beste funtzio eta jarduketa-eremu batzuen artean, turismoarena.

Arauketa horretan, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuan esleitutako eskumenen esparruan jarduten du; dekretu horren 1. artikulua arabera, irailaren 6ko 13/2020 Dekretuaren 15. artikulua hori garatze aldera, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrari dagozkion eskumenen barruan, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, beste gai batzuen artean, turismoari dagozkion funtzioak beteko ditu.

SEIGARRENA.-

Estrategiaren 8.1.1 apartatuan adierazitakoarekin bat etorriz, HTJPh erakunde kudeatzaileak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 3. artikuluan aurreikusitako toki-erakundeetako bat izan behar du:

- Udalerria.
- Probintzia.
- Uharteak, Kanarietako eta Balearretako artxipelagoetan.
- Lege honekin eta kasuan kasuko autonomia-estatutuekin bat etorriz autonomia-erkidegoek eratutako zenbait udalerriz osatutako eskualdeak zein beste erakunde batzuk.
- Metropolialdeak.

- Udalerrien mankomunitateak.

Era berean, autonomia-erkidegoek aukera izango dute udalerrriak elkartzeko beste formula batzuk, autonomia-erkidegoko araudian jasotakoak, HTJPn kudeatzaile gisa ezartzeko, esaterako, turismo-partzuergoak edo toki-ekintzako taldeak.

Toki-erakundeak dira helmugak eratzen dituzten oinarritzko unitateak, eta turisten aukeraketan eragina daukaten parametro gehien arduradunak dira, baita ereduaren jasangarritasuna eta lehiakortasuna baldintzatzen dituztenenak ere. Toki-erakundeek eskumenak dituzte turismorako ekipamenduak sortzeko, hirigintza, garraioa eta mugikortasuna antolatzeke, udalerrian jarduerak antolatzeke, eta ur-hornidura eta arazketa, hondartzen erabilera, turismo-jardueren lizentziak, erabilera publikoko zortasunak eta abar antolatzeke. Horrenbestez, Espainiako turismo-ereduaren jasangarritasuna zentzu zabalean bermatu nahi bada, batez ere turismo-helmugetan jardun behar da.

ZAZPIGARRENA.-

Donostiako Udalak Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planen ezohiko deialdian hartu zuen parte, eta «Donostiako HTJP» proiektua aurkeztu zuen; deialdian jasotako helmuga-kategorietako bat zen eta deialdian jasotako ardatzen arabera gutxieneko inbertsioa ezarri zuen.

Bai Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, bai Turismoko Estatu Idazkaritzak planaren proposamena aztertu zuten; balorazio-irizpideetan oinarrituz 100 puntutik 70 baino gehiagoko emaitza lortu zuen; hala, onartu egin zen, eta Euskadiko Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planaren parte da.

ZORTZIGARRENA.-

Funtsen transferentzia egiteko ezinbestekoa da baliatzea Dirulaguntzen Lege Orokorraren 22.2.c) artikulua⁷ eta EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 49.7 artikulua Jaurlaritzari ematen dioten ezohiko mekanismoa, interes publiko eta sozialeko ezohiko eta ageriko arrazoiak daudenean.⁸ Aipatutako inguruabarrak argi daude izaera berezia duen ezohiko ekimen honetan. Horretarako, hitzarmen honetan aurreikusitako berariazko jarduketak Donostiako Udalaren Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Plana garatzea, Turismoko Konferentzia Sektorialaren 2021eko abenduaren 21eko Erabakiaren esparruan) zehazten dira Euskadiko Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planean, eta Europar Batasuneko NextGeneration EU finantzatzeko dituen, Europako funtsen kargura, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan araututako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, 14. Osagaia. Era berean, argi dago zailtasunak egongo liratekeela laguntzok ohiko lehia-deialdi publiko baten prozedura arrunt bidez emateko, erakunde onuradun zehatzak kontuan hartuz.

⁷ «c) Salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten beste dirulaguntzak, edo deialdi publikoa egitea zaila dela modu egokian justifikatutako beste batzuk»

⁸ «7. Laguntzen edo dirulaguntzen zuzeneko esleipena Eusko Jaurlaritzaren eskumena da, sailburu interesdunak proposatuta. Zuzeneko dirulaguntza horiei ez zaie aplikatuko aurreko legeraldietan xedatutakoa, eta salbuespen-izaerakoak izango dira. Hala, arrazoitutako justifikazio bidez eta agiri-memoria baten bidez egiaztatu behar da interes publikoko, sozialeko, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak daudela, baita deialdia xedapen orokor baten bidez egiterik ez dagoela ere. Dirulaguntza horiek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, zenbatekoa, helburua eta onuradunak adieraziz, eta Eusko Legebiltzarreko Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeari sei hilabeterik behin jakinaraziko zaizkio».

Turismoko Konferentzia Sektorialaren Erabakian Euskal Autonomia Erkidegoari esleitutako kreditua jasota dago, 24,13 milioi euro, erakunde onuradunek inbertsio-jarduketak finantzatzera bideratutakoa. Hala, Donostiako Udalari dagokionez, esku hartzeko tresna Donostiako HELMUGAKO TURISMO JASANGARRITASUNEN PLANA da, 4.400.000 eurokoa.

Abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuak zenbait tresna juridiko aurreikusi zituen Europako funtsen kargura proiektuak garatzeko, tartean, lankidetzak-hitzarmenak. Gure kasuan, Donostiako Udalaren aldeko zuzeneko dirulaguntzaren kudeaketa bideratzeko tresna gisa eratu da, horren bidez bete ahal izateko Kontseiluaren Beteazpen Erabakian, Espainiako Suspendze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoan, bildutako mugak eta helburuak. Halaber, horietako bakoitzerako ezarritako finantzaketa bideratuko du.

Aipatutako abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuko 7.2 artikulua ezarri zuenez, «hitzarmenak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoaren arabera arautuko dira».

Bestalde, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48.7 artikulua arabera, «hitzarmenak dirulaguntza bat bideratzen duenean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta, hala badagokio, aplikatzeko den garapen-araudi autonomikoan aurreikusitakoa bete beharko du».

Horren ondorioz, hitzarmenaren araubide juridikoa hitzarmen administratiboaren figuraren bidez eratzen da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2 a) artikuluan ⁹ aurreikusitakoaren arabera; VI. kapituluaren bildutako aurreikuspenen mende dago, eta zuzeneko dirulaguntza baten kudeaketa bideratzen du Donostiako Udalaren alde, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legearen 32.1 artikuluari jarraikiz. Hala, Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Nagusiaren eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena eman da.

Bi alderdiek, jarduketaren helburuari erreparatu, erabaki dute administrazio arteko hitzarmen hau sinatzea, bat etorri Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.a) artikuluan ezarritakoarekin. Adierazitako guztiagatik, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute, eta hitzarmena klausula hauen arabera arautuko da:

KLAUSULAK

1.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Donostiako Udalari emandako zuzeneko dirulaguntza bideratzea da, alderdi sinatzaileen arteko lankidetzak egituratu, eta Donostiako Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Plana egikaritzeko Euskadiko Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko

⁹ DLOren 28. artikulua. Zuzeneko emakida. 1. Dirulaguntza horiek emateko ebazpenetan eta, hala badagokio, dirulaguntzak bideratzeko hitzarmenetan zehaztuko dira lege honetan ezarritakoaren arabera aplika daitezkeen baldintzak eta konpromisoak.

¹⁰ 2. Administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko erakundeek eta unibertsitate publikoek sinatzen dituzten hitzarmenak honako mota hauetarako batekoak izango dira: a) Administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutako administrazioarteko hitzarmenak, edo administrazio publiko desberdinetako erakunde publiko eta lotutako edo mendeko zuzenbide publikoko erakunde biren edo gehiagoren artean sinatutakoak; hitzarmen horien barnean bildu ahalko da beste administrazio publiko, erakunde publiko edo lotutako edo mendeko zuzenbide publikoko erakunde baten bitartekoak, eskumen propioak edo eskuordetzan emandakoak baliatzeko.

Lurralde Planaren barruan, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko europar funtsen kargura, baita horretarako behar den zenbatekoa zehazteko ere.

Hain zuzen ere, hitzarmen honen xede den HTJP Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren 217. Helburuaren¹¹ barne dago. Helburu hori Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Planetarako aurrekontua adjudikatzeari buruzkoa da. Halaber, 220. (Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Planak egikaritzea) eta 221. mugarrien (Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Planak burutzea) barne dago.

2.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKO APLIKAGARRIA

1.- Hitzarmen hau administrazio-hitzarmena da, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulutik 53. artikulura bitartekoak izango ditu arau.

Dirulaguntza hitzarmen honen bitartez bideratuko da, eta, hitzarmen honetan ezarritakoaz gain, arau hauei jarraituko die:

- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeei eta dirulaguntza horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra, eta 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorren Erregelamendua onetsi duena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, zeinaren bitartez egiten baita 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora, dirulaguntzak egikaritzean lege honen mende egon beharreko kontratuak eginez gero.
- 11/2021 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen.
- Eta aplikagarriak izan daitezkeen gainerako arauak.

2.- Dirulaguntza hau hauen mende egongo da: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua; Espainian Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren kudeaketan, jarraipenean eta kontrolean aplikatu beharko den barne-araudia –irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua eta HFP/1031/2021 Agindua–, bereziki, Administrazio Publikoa modernizatzeko presako neurriak eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana

¹¹ Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren 217. helburua: 2021eko laugarren hiruilekoa: Toki-erakundeei «Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Planak» aplikatzeko adjudikatutako laguntzak BOEn argitaratzea, gutxienez 561.000.000 eurokoak; horietatik, % 35 bideratuko da helmugetako trantsizio berdea, jasangarritasuna eta energia-efizientzia / elektromugikortasuna landuko duten neurrietara. Funts horiek erabaki honetan jasota daude. Hautaketa-irizpideek bermatu egingo dute bete egiten direla «kalte adierazgarriak ez egiteko» printzipioa aplikatzeko gida teknikoa (DO C 58, 2021.02.18koa, 1. or.), bazterketen zerrenda eta EBko eta estatuko ingurumeneko gordailua. Hautaketa-irizpideek bermatu egin beharko dute neurria finantzatzeko emandako behin betiko aurrekontu osotik, 511.000.000 euro, gutxienez, klima-aldaketari % 100eko klima-koefizientearekin lotutako helburuak betetzera bideratzea eta, 140.000.000 euro, gutxienez, % 40ko klima-koefizientearekin lotutakoetara, bat etorritik Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren VI. eranskinarekin.

egikaritzeko neurriak onartzeko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua, nahitaez aplikatu beharko baita; eta 11/2021 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra onartzekoa, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planari lotutako proiektuen eta jarduketaren kontabilitate- eta aurrekontu-betearazpenari eta kudeaketari dagokionez.

3.- ETIKETA KLIM ATIKOETARA EGOKITZEA

I.- Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planak gutxienez %39,7an lagundu behar du trantsizio ekologikoan. Ekarpena kalkulatzeko, Europar Batasunak etiketen sistema erkide bat definitu du, ingurumenaren aldetik jasagarriak diren jardura ekonomikoak sailkatzeko. Metodologia hori Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren Erregelamenduaren VI. eranskinean jaso da.

II.- Kontseiluaren Betearazpen Erabakian aurreikusitakoarekin bat etorritik, HTJPn jasotako jarduerak klima-aldaketarekin % 100eko klima-koefizientearekin lotutako helburuak lortzen lagunduko dute, eta % 40ko klima-koefizientearekin lotutakoak ere bai, bat etorritik Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren VI. eranskinarekin.

4.- FINANTZATUKO DIREN JARDUKETAK ETA DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK

4.1 FINANTZATUKO DIREN JARDUKETAK

1.- Donostiako Udaleko HTJPeko jarduketa hauek finantzatuko dira:

10. esku-hartzea: Lekeitioko Udalaren HTJP: Lea Ibilbidea						
Jarduera-ardatzak	Jarduerak		1. urtekoa	2. urtekoa	3. urtekoa	GUZTIRA
1. ARDATZA	1	Arraitz uhartea parke arkeologiko gisa balioztatzea	60.000	60.000	20.000	140.000€
		1. ARDATZA guztira	60.000€	60.000€	20.000€	140.000€
2. ARDATZA	2	Mendietako ontziola bidearekin lotzea	0	10.000	40.000	50.000€
	3	Aterpetxeen birgaitze jasagarria	25.000	25.000	0	50.000€
		2. ARDATZA guztira	25.000€	35.000€	40.000€	100.000€
3. ARDATZA	4	I. Ibilbidea Digitalizatzeko Plana diseinatzea eta ezartzea	5.000	10.000	5.000	20.000€
	5	Ibilbidearen komunikazio eta interpretazio digitalerako zentro bat sortzea	70.000	30.000	0	100.000€
	6	Santa Katalina itsasargiaren interpretazio-zentroa berritzea	0	5.000	15.000	20.000€
		3. ARDATZA guztira	75.000€	45.000€	20.000€	140.000€
4. ARDATZA	7	Mendieta ontziola birgaitzea	80.000	200.000	200.000	480.000€
	8	Santa Katalina itsasargirako irisgarritasuna	0	25.000	75.000	100.000€
	9	Gobernantza	6.500	6.500	7.000	100.000€
	10	Natura- eta kultura-ondarearen ibilbideak lispasterren	15.000	5.000	0	20.000€
		4. ARDATZA guztira	101.500€	236.500€	282.000€	620.000€
		GUZTIRA				1.000.000€

2.- Erakunde onuradunaren HTJp jasotako jarduketak Europar Batasunaren Next Generation EU funtsekin finantzatu dira, Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez. Mekanismo hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan ezarrita dago.

Aurretik ezarritakoaren arabera sortutako kredituak Ekonomia eta Ogasun Sailak gaituko ditu «Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa» izeneko 1228. programan.

4.2 DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK

1.- Zalantzarik gabe jarduketari lotutako gastu guztiak ulertuko dira finantzatu daitezkeen gastu modura, betiere 217. helburua lortzera bideratzen badira jarduerak eginez, eta behar-beharrezkoak badira, eta hitzarmen honetan ezarritako epe barruan egiten badira. Halaber, finantzatu daitezkeen kostu izan ahalko dira hauek:

- g) Kanpo-kontratazioak, ingeniariak, jarraipena eta obra zibilekoak.
- h) Finantzatu daitezkeen jarduketekin lotutako ekipamenduak erosteko kontratuak, ekipamendu teknologikoak eta informatikoak barne.
- i) Software espezializatuko lizentziak erostea, baldin eta jarduketarako baino ez badira, eta eskuratutako ekipamendua behar bezala erabiltzeko aukera ematen badute.
- j) Aholkularitzako kanpo-kontratazioak, diruz lagundutako jarduketari lotuta egiten badira. Bideragarritasunaren eta xehetasun-ingeniariari buruzko azterketak diruz lagundu ahalko dira, betiere beharrezkoak badira jarduketa egiteko. Hautagarritasun-data baino lehen egindakoak izan ahalko dira, baina, kasu horretan, kostua ez da hautagarria izango.
- k) Kanpo-kontratazioak lege-aholkularitza, notariotza, aholkularitza tekniko edo finantzario, kontabilitate edo auditoretzako lanetarako, proiektuari zuzenean lotuta badaude eta beharrezkoak badira proiektua prestatu edo garatzeko, betiere aurrekontuan aurreikusitakoak badira.

2.- BEZa gastu finantzarri gisa hartuko da, betiere Kontseiluaren Beteazpen Erabakiko mugarrak betetzen bada, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.8 artikuluan ezarritako muga bakarrarekin: «Tributuak gastu diruz lagungarriak izango dira dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen dituzenean. Gastu hauek ez dira inola ere diruz lagunduko: zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak».

3.- Ez dira finantzatu daitezkeen kostu modura hartuko:

- Administrazio-baimenak, lizentziak, baimenak, abalen edo fidantzen kostuak eta isunak.
- Administrazio izapideei, kontsultei, kontratazioei edota kudeaketei lotutako edozein gastu, baimenak edo lizentziak lortzeko beharrezkoak izan arren.
- Eskatzaileak sinatutako aseguruak.
- Obrako zaintza- eta horren segurtasun-lanak, martxan jarri arte.
- Edozein kostu finantzario.
- Zehapen penalei lotutako kostuak, baita prozedura judizialako gastuak ere.
- Sistema eragile eta aplikazio ofimatikoetarako lizentziak.
- Administrazioaren jarduketan eragiketa- eta mantentze-gastuak edo gastu propioak.

4.- Gastuak frogatuko dira faktura eta froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentuen bitartez, baliozkoak direnean merkataritzako trafiko juridikoan, edo administrazio-eraginkortasuna dutenak.

5.- Diruz lagundu daitezkeen gastuen barruan daude, nolanahi ere, erakunde onuradunak HTJPrekin lotuta 2022ko urtarrilaren 1etik egindakoak.

5.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN BETEBEHARRAK, EUSKO JAURLARITZAKO TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAREN BITARTEZ

1.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, dagozkion eskumenak baliatuz eta Turismoko Konferentzia Sektorialaren 2021eko abenduaren 21eko Erabakiaren indarrez –horren bidez finkatu ziren erakunde onuradunen inbertsio-jarduketak finantzatzera bideratutako kredituaren banaketa-irizpideak, baita horien ondorioz autonomia-erkidego bakoitzari zegozkion zenbatekoak ere, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren 1. Inbertsioaren 14. Osagaiaren esparruan–, 2022an 4.400.000 euro emango dizkio erakunde onuradunari, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa izeneko aurrekontu-programaren kargura: 1228 programa, 12281 azpiprograma, 1001211000 1.12281.72100 2022/001754 aurrekontu-aplikaziora.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoak Turismoko Estatu Idazkaritzaren aurrean justifikatu beharko du transferentziaren helburua bete egin dela eta jasotako funtsak aplikatu egin direla. Horretarako, adjudikatutako proiektuak eskatutako betekizunekin bat etorritz garatzea zaindu beharko du.

Era berean, nahitaez bete beharko ditu Europako Suspertze Mekanismoa zein STEPa egikaritzeko edo kudeatzeko onar daitekeen estatuko zein Europako edozein araudi aplikatuz Turismoko Estatu Idazkaritzak zein edozein organo edo agintaritza eskudunek eman ditzakeen jarraibideak.

3.- HTJPeren proiektu edo ekimenei egotzitako gastuen kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko erantzukizuna bere gain hartuko du Euskal Autonomia Erkidegoak, bat etorritz abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 46. artikuluan ezarritakoarekin. Horrez gain, kasuan kasuko mugarrak eta helburuak lortzea erregistratu eta horren berri emateko betebeharrak ere hartzen ditu bere gain, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 3. artikuluan aurreikusitako inguruabarretan, baita irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan ezarritako gainerako betebeharrak ere.

6.- ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

6.1 HTJP egikaritzeari dagokionez hartutako konpromisoak:

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorra onartu zituen abenduaren 23ko 11/2021 Legearen V. Kapituluan ezarritakoarekin zein abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 37.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan jasota egoteagatik finantzatuko diren proiektuak egikaritzeko EAEk jasotako diru-sarrerak legez lotuta geratuko dira proiektu horiek finantzatzera; hala, gastua egiten ez bada edo aurreikusitako helburuak erabat edo partzialki betetzen ez badira, diru-sarrerak erabat edo partzialki itzultzeko betebeharra ere egongo da.

2.- Erakunde onuradunak egin beharreko jarduketak laugarren klausulan jasotakoak izango dira.

Halaber, erakunde onuradunari honako hau dagokio:

- a) Programako jarduketak egitea eta aurreko puntuan aurreikusitako funtsak hitzarmen honetan jasotako jarduketak egikaritu eta garatzeko aplikatzea. Jarduketak gauzatzeko, toki-erakundeek baliabide propioen bidez gauzatu ahal izango dituzte jarduketak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. eta 33. artikuluetan xedatutakoaren arabera.
- b) Zenbatekoa laugarren klausulan aurreikusitako epean egikaritu beharreko inbertsioaren jarduketa zehatzetara bideratzea.
- c) Behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak bideratzea egikaritze-epeak betetzeko eta horrekin lortu nahi diren emaitzak maximizatzeko.
- d) Egin izana justifikatzea, hitzarmen honetan jasotako dokumentazioa (11. klausula) Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailera igorritz.
- e) Administrazioaren jardunean objektibotasun, publizitate eta gardentasunaren printzipioen bidez jokatzeko.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzea.

6.2 Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari dagokionez Europar Batasuneko xedapenen mende jartzeko betebeharra

1. Oro har, erakunde onuradunak betebeharrak hauek izango ditu:

- a) Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren 217. helburua betetzeari laguntzea (Helmuetako Turismo Jasangarritasuneko Planetarako aurrekontua adjudikatzea), baita 220. (Helmuetako Turismo Jasangarritasuneko Planak egikaritzea) eta 221. (Helmuetako Turismo Jasangarritasuneko Planak burutzea) mugarriak ere.
- b) Jasotako funtsak kasuan kasuko helburu zehatzera bideratzea eta proiektuaosatzen duten jarduketak egitea, hitzarmen honetan ezarritako forma, baldintza eta epeetan, eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren aurrean justifikatzea helburua bete dela eta izan duen kostu erreala.
- c) Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzea, detektatzea, jakinaraztea, zuzentzea eta horien arriskuaren ebaluazioa egitea eta Interes-gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) betetzea eta interes-gatazka horiei heltzeko prozedura bat eskura izatea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren esparruan, bat etorritik irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko betebeharrekin. Horren haritik, tokiko erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzaren «Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana egikaritzean iruzurraren aurkako, interes-gatazketarako, finantzaketa bikoitzeko, estatu-laguntzetako eta ingurumenari kalte adierazgarri ez egiteari buruzko eskakizunak betetzeko neurrien plana» aplikatu beharko du; plan horren 2.2 artikulua ezartzen duenez, «plana aplikagarria da Euskal Autonomia Erkidegoko udaletan, foru-aldundietan eta administrazio orokorrean, eta toki-administrazioa osatzen duten erakundeetan, baita horiei lotutako organismo publikoetan eta zuzenbide publikoko erakundeetan ere, SEMetik eratorritako funtsak kudeatu edo egikaritzen diren neurrian».

Plan horri esker bermatu eta adierazi daiteke, kasuan kasuko jardun-esparruan, funtsak arau aplikagarriekin bat etorritik erabili direla kasuan-kasuan, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihestu, antzeman eta zuzentzeko.

Bereziki, neurriak hartuko dira interes-gatazkarik ez dagoela ziurtatzeko, eta izapidetuko diren espedienteetan behar diren txostenak edo erantzukizunpeko adierazpenak jaso beharko dira, beharrezkoak badira, eta interes-gatazken araudi erregulatzalea aplikatu beharko da, halakorik suertatuz gero.

d) Proiektura bideratutako funtsen aplikazioa kontrolatzeko eta jarraipena egiteko jarduketan mende jartzea, dokumentuak egiaztatuz, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren etengabeko eta amaierako ebaluazioaren mende jartzea, baita kontrol finantzarioaren mende ere, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Kontuen Auzitegiaren eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak funtsak kontrolatu eta horren jarraipena egiteko agindu zaien estatu-mailako zein Europako organoen kontrol finantzarioaren mende, bereziki Europako Batzordea, Europako Kontuen Auzitegia, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoa (OLAF) eta Europako Fiskaltza, zeinek egindako jarduketan informazio xehera sarbidea izan ahalko baitute.

e) Hitzarmen honen esparruan egingo diren jarduketa guztien kudeaketa, egikaritze eta kontrolari buruz behar den informazio oro Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailera igortzeko konpromisoa hartu dute.

f) Erakunde onuradunak, erakunde jardulea den aldetik, HFP/1030/2021 Aginduko 8. artikuluan adierazitakoa egingo du, funtsen azken hartzailea, laguntzen erakunde onuradunak, kontratistak eta azpikontratistak identifikatzeari eta informazio hori emateari dagokionez.

Zehazki, aurreikusitako beharko da funtsen azken hartzaileek onartu egingo dutela inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea, Europako araudi aplikagarrian aurreikusitakoa betetzeko, bat etorritik Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legearekin, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren IV.B eranskinean ezarritako ereduari jarraituz.

Horretarako, toki-erakunde onuradun betearazleak lizitazio-prozeduretan kontratistak eta azpikontratistak identifikatzeko betebeharrak sartuko ditu, hitzarmen honen bederatzigarren klausulan ezarritako baldintzetan.

Kontratistek egiaztatu egingo dute izena eman dutela Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan, edo Zergen Foru Administrazioako errolda baliokidean; lizitazio-prozeduran parte hartu den unean benetan garatutako jarduera islatu behar da.

g) Hitzarmen honen esparruan garatutako jarduketan auditoria-bide egokia mantentzea, eta oinarri-dokumentazioa gordetzeko betebeharra. Informazioa Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduak eta HFP/1030/2021 Aginduak ezarritako inguruabarretan emango da.

h) Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten jatorrizko agiriak zaintzea eta gordetzea, egiaztatuak eta ikuskatuak izan daitezkeen bitartean, behintzat.

i) Finantzaketari lotutako dokumentu justifikagarriak, estatistika-datuak eta gainerako dokumentazioa gorde beharko dute, baita erregistro eta dokumentuak ere, formatu elektronikoan eta finantza-eragiketa baten saldoa ordaindu denetik bost urteko tartean, edo hiru urteko tartean, dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa denean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamenduaren (EB, Euratom) 132. artikuluan aurreikusitako inguruabarretan.

j) Erakunde onuradunak jarduera egiteko behar den enplegu guztia Espainian sortzeko betebeharra izango du; langileak kontratatuz eta Gizarte Segurantzara afiliatuz egin beharko da. Eskakizun hori betetzea agiri bidez justifikatu beharko da.

k) Erakunde onuradunak bete egin beharko du estatuko dirulaguntzen araubidearekin bateragarri izateari buruzko estatuko eta Europako araudia, eta finantzaketa bikoitza saihesteari buruzkoa, bat etorritz irailaren 29ko HFP 1030/2021 Aginduko 7. artikuluan aurreikusitakoarekin, hitzarmen honen 11. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

l) Jarduera edo jarduerak egiteko hitzarmen honetan aurreikusitako epe eta baldintzetan erabili ez diren aurrerakinak Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari itzultzea, 10. klausulan ezarritako prozedurarekin bat etorritz.

ll) Publizitate, ezagutarazpen eta komunikazioko betebeharrak betetzea, bat etorritz irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluekin eta hitzarmen honen 12. klausularekin.

m) Erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du SEMeko funtsekin finantzatutako jarduketan datuak eta informazioa jasotzeko kasuan kasuko epeetan eta administrazio eskudunak horretarako ezarriko duen aplikazioan.

n) Inbertsioaren zenbatekoa komunikatzea, BEZik gabe, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari.

2. «Kalte adierazgarririk ez egiteko» printzipioa aplikatuz («*do no significant harm-DNSH*»), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak eta Suspertze Planak aurreikusitakoarekin bat etorritz, ingurumen-legedi aplikagarria errespetatuko da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko 2020/852 (EB) Erregelamendua barne (inbertsio jasagarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa eta 2019/2088 (EB) Erregelamendua aldatzekoa), baita Europako Batzordearen Gida Teknikoa (2021/C 58/01) ere, «kalte adierazgarririk ez egiteko» printzipioa aplikatzeari buruzkoa. Ingurumen-ebaluazioko prozedurak errespetatu egingo dira, aplikagarriak direnean, indarrean dagoen legediarekin bat etorritz, baita ingurumen-legedia dela bide aplikagarriak izan daitezkeen bestelako ondorioen beste ebaluazio batzuk ere.

DNSH printzipioa betetzen dela egiaztatzeko justifikazioa aurkeztu beharko da, DNSH printzipiora egokitzearen inguruko aldeko ebaluazio baten bidez edo, hala badagokio, hori betetzen dela adierazteko erantzukizunpeko adierazpen bidez.

Nolanahi ere, Kontseiluaren Beteazpen Erabakian ezarritakoa betez, HTJpⁿ jasotako neurriak DNSH printzipioa aplikatzeko gida teknikora egokitzen direla bermatze aldera, proiektuen hurrengo deialdietako dirulaguntzen baldintza-agirietan ezarritako irizpideek jarduera hauek kanpo utziko dituzte: i) erregai fosilekin lotutako jarduerak, gerorako erabilera barne; ii) EBko emisio-eskubideen merkataritza-araubidearen esparruko jarduerak, sortuko dituzten berotegi-

efektuko gasen emisioak ez badira kasuan kasuko erreferentziako parametroetatik beherakoak; iii) hondakinen zabortegiekin, erraustegiekin eta tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioekin lotutako jarduerak; eta iv) hondakinak epe luzera suntsitzeko jarduerak, ingurumenari kalte egin ahal diotenean. Baldintza-agiriak, gainera, eskatuko du estatuko eta EBko ingurumen-legedia betetzen dituzten jarduerak soilik aukeratu ahal izango direla.

3. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa arautzen duen gainerako araudia eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Espainiako gobernuak horren inguruan onar ditzaketen araudietan ezarritakoa, baita Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren inguruan Batasunak emango dituen xedapenak ere.

7.- BIRGAITZE-LANAK, EKIPAMENDUAK, AZPIEGITURAK INPLIKATUKO DITUZTEN JARDUKETAK

Birgaitze-lanak, ekipamenduak eta azpiegiturak inplikatzeko dituzten jarduketetan, DNSHen honako baldintza zehatz hauek kontuan hartu beharko dira:

- Kutsadura saihesteko eta kontrolatzeko: ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko da neurriaren inbertsio bakoitzean, bat etorritik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren zuzentarauarekin eta ingurumen-inpaktua ebaluatzeko estatu-araudiarekin; eta lurzorua eta uraren kutsadura saihestu eta kontrolatzeko behar diren neurri aringarri guztiak identifikatu, eta proiektu bakoitzaren diseinuan jasoko dira.
- Eraikuntzan erabilitako eraikuntzako materialek eta osagaiak ez dute amiantorik edukiko, ezta oso substantzia kezagarriarik ere; alegia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren XIV. eranskinean jasotako baimenari lotutako substantzian zerrendaren arabera identifikatutakoak.
- Eraikuntzan erabilitako eraikuntzako materialek eta osagaiak, erabiltzaileekin kontaktua izan badezakete, material edo osagaiaren m³ bakoitzeko 0,06 mg formaldehido baino gutxiago airetatutako dute, eta material edo osagaiaren m³ bakoitzeko 1A eta 1B kategorietako konposatu organiko lurrunak kantzerigenoak 0,001 mg baino gutxiago. Horiek neurtzeko, proba bat egingo da CEN / TS 16516 eta ISO 16000-3 arauak jarraituz, edo bestelako proba-baldintza estandarizatuak eta zehazte-metodo konparagarriak jarraituz. Gainera, neurriak hartuko dira obra-fasean zarata, hautsa eta emisio kutsagarriak murrizteko, eta neurri horri lotutako jarduketak beti egingo dira indarrean dagoen araudi aplikagarria betez, lurzoruak eta ura kutsatzeko arriskuak dagokionez.
- Biodibertsitatea eta ekosistemak babestu eta lehengoratzeko eta kutsadura saihestu eta kontrolatzeko: Birgaitze-jarduketak biodibertsitate-garrantziko eremuetan egin behar badira (eremu babestuen Natura 2000 Sarea, UNESCOren Munduko Ondareko lekuak eta biodibertsitateko gako-tokiak barne, baita bestelako eremu babestuak ere), edo horien inguruetan, Habitaten Zuzentarauaren 6.(3) eta 12. artikulua eta Hegaztien Zuzentarauaren 5. artikulua betetzea eskatuko da. Horrez gain, nahitaezkoa denez, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren zuzentarauarekin bat etorritik, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko da.
- Klima-aldeketa arintzeko: Eraikinak birgaitzean, kontuan hartu beharko dira eraikinen energia-efizientziari buruzko 2018/844 (EB) Zuzentarauan jasotako jarraibideak, ia energia-kontsumorik gabeko eraikinak izate aldera, eta energia primario berriztaezinen kontsumoa nabarmen murrizteko.

- Klima-aldaketa egokitzeko: Birgaitze-neurriak eraikinak klima-aldaketa egokitzea ahalbidetuko dute, eraikinaren arabera hartu daitezkeen konponbideak ezarriz, eta eraikin babestuetan, babes-mailaren arabera hartu daitezkeenak, hala nola landare-estalkiak, olanak, itzalguneak eta abar.
- Ekonomia zirkularrera trantsizioa egiteko:
 4. Inbertsio horretan aurreikusitako jarduketetan sortutako eraikuntza- eta eraipen-hondakin ez-arriskutsuen % 70 (pisan) gutxienez (2000/532/EE Erabakiak finkatutako Europako Hondakinen Zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala izan ezik), berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da, bestelako material batzuk ordezkatzeko hondakinak erabiliz egindako betelanak barne, hondakinen hierarkiaren eta EBren eraikuntza- eta eraipen-hondakinak kudeatzeko protokoloaren arabera.
 5. Operadoreek hondakinen sorkuntza mugatu egin beharko dute eraikuntzarekin eta eraipenarekin zerikusia duten prozesuetan, EBren eraikuntza- eta eraipen-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorriz, eskuragarri dauden teknikarik onenak kontuan hartuta eta eraipen selektiboa erabiliz, substantzia arriskutsuak modu seguruan ezabatu eta manipulatu ahal izateko eta kalitate handiko berrerabilpena eta birziklapena errazteko, materialak gaika ezabatuz, eraikuntza- eta eraipen-hondakinetarako eskura dauden sailkapen-sistemak erabiliz.
 6. Eraikinen diseinuek eta eraikuntza-teknikek zirkulartasuna bultzatuko dute, bereziki eraikinak desmuntatzeko edo egokitzeko gaitasuna ebaluatzeko ISO 20887 arauari jarraikiz; zer-nola dauden diseinatuta baliabideen erabileran efizienteagoak, moldagarriak, malguak eta desmuntagarriak izateko, berrerabiltzea eta birziklatzea ahalbidetzeko.

Jardueren diseinua eta garapena DNSH printzipiora egokitzeko, gida orientagarri hau erabili ahal izango da:

https://www.miteco.gob.es/es/ministerio/recuperacion-transformacion-resiliencia/transicion-verde/guidnshmitecov20_tcm30-528436.pdf

8.- LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA

1.- Ordainketa aldez aurretik egingo da, eta aldi bakarrean; hitzarmen hau sinatu ondoren ordainduko da, eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen direla egiaztatu eta gero.

2.- Ordaindu beharreko zenbatekoa 4.400.000 euro da, Turismoko Konferentzia Sektorialaren 2021eko abenduaren 21eko Erabakian erakundeari bideratutako kredituari erreparatuz, Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Plana egikaritzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legearen 32.3 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, ez da bermerik eratu behar.¹²

9.- AZPIKONTRATAZIOA

1. Erakunde onuradunak jarduerak azpikontratatu ahal izango ditu, osorik nahiz partzialki, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100 gehienez ere. Kasu horretan, honako hauetan ezarritakoaren mende egongo da: azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzei buruzko orokorra; azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, zeinaren bitartez egiten baita 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora; baita estatu-laguntzen arloko araudian eta abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuan eta irailaren 29ko HFP 1030/2021 eta HFP 1031/2021 aginduetan ezarritakoaren mende ere.

2. Jarduera erabat edo partzialki azpikontratatzuz gero, azpikontratestek «ingurumenari kalte adierazgarririk ez egiteko» printzipioa betetzen dutela ziurtatzeko mekanismoak aurreikusi beharko dira.

3. Azpikontrataturako erakundeek arau juridiko, etiko eta moraletako estandarrik zorrotzenak betetzeko konpromisoa hartu beharko dute; iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihestu eta antzemateko behar diren neurriak hartu beharko dituzte, ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatu beharko dituzte eta ingurumenean inpaktu negatibo nabarmenak ekidin beharko dituzte («DNSH», ingeleseko siglak, «*do no significant harm*») plan horren esparruan egingo diren jarduketak egitean; orobat, ezingo dute finantzaketa bikoitzik eduki eta, hala badagokio, ezingo dute estatu-laguntzen araubidearekiko bateraezintasun-arriskurik izan. Ondorio horietarako, aipatutakoa inguruabar horietan betetzen dela kasuan kasuko azpikontrataren aitortzearen bidez egiaztatuko da.

4. Erakunde onuradunak kontratistak eta azpikontratistak identifikatu beharko ditu; hala, lizitazio-prozeduretan honako datu hauek jaso beharko dituzte:

- a) Kontratataren edo azpikontratatisten IFZ.
- b) Izena edo izen soziala.
- c) Kontratataren eta, hala badagokio, azpikontratatisten zerga-egoitza.
- d) Inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzea, Europa mailako araudi aplikagarrian aurreikusitakoa betetzeko eta bat etorritik Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin.
- e) STEPen ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, kudeatu beharreko esparruari eragiten badiote.
- f) Kontratatisten egiaztatu egingo dute izena eman dutela Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan, edo Zergen Foru Administrazioako errolda baliokidean; lizitazio-prozeduran parte hartu den unean benetan garatutako jarduera islatu behar da.

10.- JARRAIPEN-BATZORDEA

3.- Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planari lotutako proiektuen eta jarduketaren esparruan emandako laguntza eta dirulaguntza publikoen kasuan, dirulaguntza aurretiaz ordaindu ahal da justifikazioa eman aurretik, beharrezkoa bada laguntzaren edo dirulaguntzaren berezko jarduketak egiteko; ez da izango beharrezkoa bermea eratzeko.

1. Hitzarmen hau betetzean, aplikazioan eta interpretazioan sortu daitezkeen auziak ebazteko eta kontrolatzeko, hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera geratuko da eratuta jarraipen-batzordea, eta batzordearen funtzionamendurako barne-arauak emango ditu; alderdietako batek eskatzen duen aldiro batu beharko da batzordea, eta, gutxienez, urtean hiru aldiz.

2. Hitzarmen honetan aurreikusten denaren arabera jardungo du batzordeak, eta, modu osagarrian, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen lehenengo titulua II. kapituluaren hirugarren atalean xedatzen denaren arabera.

3. Batzordea paritariora izango da, eta honako hauek batzordeko kideak:

- Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren aldetik: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailburuak izendatutako bi ordezkari:
 - Turismo eta Merkataritzako sailburuordea.
 - HTJP egikaritzea kontrolatzeko eta jarraipena egiteko teknikari arduradun bat, Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzak izendatutakoa.

Turismo eta Merkataritzako sailburuordeak ordezkaritza eman ahalko dio horretarako izendatutako beste norbaiti.

- Toki-erakundearen aldetik: Donostiako Udaleko alkate-udalburuak izendatutako bi kide:
 - Zeharkako Zerbitzuen Koordinatzailea. Donostiako Udala.
 - Donostiako Sustapenaren Kudeatzailea.

4. Hitzarmen hau egikaritzean, interpretazioan eta aplikazioan sor litezkeen auzi guztiak zaindu, kontrolatu, ebatzi eta jarraipena egitea izango dira Jarraipen Batzordeari emandako eginkizunak.

11.- JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA

1. Donostiako Udalak, behin lanak amaituta (2024ko abenduaren 31), Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren aurrean horixe justifikatu beharko du gehienez ere 3 hilabeteko epean. Horretarako, ezarritako baldintzak bete dituela justifikatzeko jarduketaren memoria eta memoria ekonomikoa aurkeztu ditu, aintzat hartuz abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuko 63. artikuluan ezarritako berezitasunak, honako dokumentazio hau jasoz:

a) Baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduketa-memoria, egindako jarduketak eta lortutako emaitzak adierazten dituen.

b) Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua, alderdi hauek zehaztuta: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, zer datatan eman den, eta, hala badagokio, noiz ordaindu zen. Laguntza aurrekontu baten arabera eman bada, gertatutako desbideratzeen berri eman beharko da.

c) Aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan jasotako fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan antzeko froga-balioa duten dokumentuak edo administrazio-eraginkortasuna dutenak; eta, hala badagokio, ordainketaren egiaztagiria.

d) Onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.3 artikulua aplikatuz.

e) Idazkariak/kontu-hartzaileak emandako ziurtagiria, hauek justifikatzeko: jarduera egin dela, jasotako funtsak dagokien helburuan aplikatu direla, diruz lagundutako jarduketei lotuta egindako ordainketen xehetasunak eta dirulaguntzaren justifikazio-agirien egiazkotasuna eta arauzkotasuna.

f) Hartutako hedapen-neurriei buruzko ziurtagiria, oro har jakitera emateko diruz lagundutako jarduketak estatuak finantzatu dituela, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.

g) Erantzukizunpeko adierazpenak, irailaren 29ko HFP/1030/2021 eta HFP/1031/2021 aginduetan ezarritako kudeaketa- eta informazio-sistemei buruzko arau-xedapenei jarraikiz.

2. Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten jatorrizko agiri guztiak gorde beharko dira, egiaztatuak eta ikuskatuak izan daitezkeen bitartean, behintzat.

3. Halaber, toki-erakundeak beste edozein txosten edo ziurtagiri aurkeztu beharko du, estatu-mailako edo Europako araudiak Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan halakorik eskatuz gero.

4. Aurkeztutako dokumentazioa Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak aztertuko du, eta beharrezkotzat jotzen duen beste dokumentu edo datu argigarri batzuk aurkezteko eskatu ahalko du, modu gehigarrian, edo, hala badagokio, erabili ez diren zenbatekoak itzultzeko kasuan kasuko prozeduraren bidez.

5. Kontseiluaren Betearazpen Erabakian jasotako 220. mugarrian aurreikusitakoa betetze aldera, Jarraipen Batzordeak ziurtatu egingo du helmuga onuradun guztiek gutxienez Turismo Jasangarritasuneko Plan bakoitzaren betearazpen-ehuneko hauek lortzea:

- 2021ean adjudikatutako helmugun kasuan, % 75eko betearazpena.

- 2022an adjudikatutako helmugun kasuan, % 50eko betearazpena.

- 2023an adjudikatutako helmugun kasuan, % 25eko betearazpena.

Bestalde, 221. mugarrian ezarritakoa dela bide, HTJpN jasotako eta 211. eta 212. helburuekin bat etorritik adjudikatutako proiektu guztiak bukatzea. Funts horien %35 bideratuko dira helmugetan trantsizio berdea, jasangarritasuna eta energia-efizientzia/elektromugikortasuna landuko duten neurriak finantzatzera, eta bat etorriko dira DNSH printzipioa aplikatzeari buruzko gida teknikoarekin, bazterketen zerrenda bat erabiliz, eta estatuko eta EBko ingurumen-legedia betetzeko eskakizunarekin.

12.- PUBLIZITATEA ETA HEDAPENA

1.- STEPeko programa guztiak egikaritzean «STEPen marka-eskuliburua» nahitaez erabili behar da. Horrek esan nahi du sortuko den agiri, aurkezpen eta gainerakoek Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren elementu identifikatzaileak jaso behar dituela aipatutako eskuliburuak ezartzen duen eran, bereziki «R» logotipoa eta Espainiako gobernuaren armarri identifikatzailea.

2.- Laguntzaren erakunde onuradunak publizitate-mailako betebeharrak bete beharko ditu:

a) Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketari dagozkionak, Europako eta estatu-mailako araudi aplikagarriarekin bat etorriz eta, zehatz-mehatz, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko 9. artikuluekin.

b) Inbertsioek garatutako jarduketaren informazio- eta komunikazio-neurrietan (informazio-kartelak, plakak, argitalpen inprimatuak eta elektronikoak, ikus-entzunezko materialak, webguneak, prentsan txertatutako argitalpenak eta iragarkiak, ziurtagiriak eta abar) logotipo hauek sartu beharko dira:

1. Europar Batasunaren enblema.

2. Batasunaren enblemaren alboan «Europar Batasuneko Next Generation EUk finantzatua» testua sartuko da.

3. Kontuan hartu beharko dira 821/2014 Exekuzio Erregelamenduko II. eranskinean ezarritako arau grafiko eta kolore normalizatuak. Erregelamendu horren bidez ezarri ziren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak, programaren ekarpenen kudeaketako eta transferentziako modalitate zehatzei, tresna finantzarioei buruzko informazioa aurkezteari, lanen komunikazio- eta informazio-neurrien ezaugarri teknikoak eta datuak erregistratu eta gordetzeko sistemari buruzkoak. Webgune honetan ere kontsulta daiteke: <http://publications.europa.eu/code/es/es-5000100.htm> eta enblemaren ereduak hemen deskargatu daitezke: https://europa.eu/european-union/about-eu/symbols/flag_es#download.

c) Edozein hedabidetan inbertsio onartuei buruzko erreferentzia eginez gero, beti aipatu beharko da Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak finantzatu dituela.

d) Edozein hedabidetan inbertsio onartuei buruzko erreferentzia eginez gero, Suspertze Planaren logotipoa erabili beharko da hedapen-baliabide modura. Esteka honetan dago eskuragarri: <http://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual>.

3.- Nolanahi ere, informazio-kartel edo plaka oro herritarrek erraz ikusi ahal izango duten leku batean ipini beharko dira, eta testua Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko da.

13.- EZ-BETETZEAK ETA DIRUA ITZULTZEA

1. Erakunde onuradunak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren dirulaguntza eskatutako eta emandako xede espezifikoak betetzeko erabiltzen ez badu, dirulaguntza ematea eragin zuen jarduketa egiten ez badu, dirulaguntza zertarako eman zen, helburu horrexetarako erabili dela egiaztatzen ez badu edo, oro har, onuradunak ez badu betetzen erakunde eskudunak ezarritako baldintzaren bat, ikuskapen-lanak ahalbidetu nahi ez baditu edo onuradunen betebeharren bat betetzen ez badu, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela adieraziko da, betiere alde zuzenetik interesdunari entzun ondoren; gainera, hala badagokio, jasotako kopuruak eta dagozkion interes legalak itzuli beharko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, hala, betez azaroaren 11ko 1/1997 Lege Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen berme eta itzulketei buruzko abenduaren 17ko

698/1991 Dekretua eta testu horietan ezarritako inguruabarretan. Azken horretan ezartzen dira kudeaketan parte hartzen duten erakunde kolaboratzaileek bete beharreko baldintzak, araubidea eta betebeharrak.

Era berean, bat etorritz 2021eko abenduaren 21eko Turismo Konferentzia Sektorialaren Erabakiarekin (toki-erakundeek Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren 1. Inbertsioaren 14. Osagaiaren esparruan egin nahi dituzten inbertsio-jarduketak finantzatzera bideratutako kredituaren banaketa-irizpideak eta lurralde-banaketa finkatu zituen), jasotako zenbatekoak guztiz edo partzialki itzuli beharko dira kasu hauetan:

a) Aurreikusitako helburuak ez lortzea, guztiz edo zati batean: itzulketa, gutxienez ez-betetzeak funts europarrak altxor publikora itzultzea eragozten duenean, eta autonomia-erkidegoaren erantzukizuneko neurriei dagokienez jaso gabeko itzulketaren zenbatekoz.

b) Aurreikusitako helburuak lortu izana ezin egiaztatu ahal izatea, txostenetan jasotako adierazleen fidagarritasun-ezagatik: itzulketa, gutxienez ez-betetzeak funts europarrak altxor publikora itzultzea eragozten duenean, eta autonomia-erkidegoaren erantzukizuneko neurriei dagokienez jaso gabeko itzulketaren zenbatekoz.

c) Bere erantzukizuneko neurriei eragiten dien edozein irregulartasun, estatuko edo Batasuneko agintariek egindako edozein kontroletan hautemandakoa, eta funtsak altxor publikora itzultzea eragozten duena: autonomia-erkidegoaren erantzukizuneko neurriei dagokienez jaso gabeko itzulketaren zenbatekoa itzultzea.

d) Jasotako zenbatekoak ez erabiltzea eman ziren neurrietarako: behar ez bezala erabilitako zenbatekoak Estatuari itzultzea.

2. Halaber, funtsak itzuli egin beharko dira, baldintza bereziak izateagatik, ez badira betetzen «kalte adierazgarriak ez egiteko» printzipioa, etiketa digitalaren edo ingurumeneko etiketen printzipioa edo Kontseiluaren Betearazpen Erabakian (Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoan) eta 14. Osagaien jasotako baldintzak.

3. Erakunde onuradunaren betetze-maila planean jasotako jarduerak eta hitzarmen honetan zehaztutako mugarriak eta helburuak betetzera nabarmen hurbiltzen bada, eta erakundeak bere konpromisoak betetzeko jardun argia egiaztatzen badu, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-printzipioa aplikatuz kalkulatu da.

4. Emandako dirulaguntza itzultzea eskatzeko organo eskuduna Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua izango da.

14.- BATERAGARRITASUNA BESTE LAGUNTZA EDO DIRULAGUNTZA BATZUEKIN ETA FINANTZAKETA BIKOITZIK EZA

1.- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, mekanismoaren esparruan emandako laguntza Batasunaren beste programa edo tresna batzuekin bat etorritz emandako beste laguntza batzuei gehituko zaie. Inbertsioaren proiektuek eta erreformek Batasunaren beste programa eta tresna batzuen laguntza jaso ahalko dute, betiere laguntza horrek kostua bera estaltzen ez badu.

2.- Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 7. artikuluko 3. apartatuak aurreikusitakoa kontuan hartu beharko da. Horren ondorioz, laguntzek gehitzeko printzipioa eta finantzaketa bikoitza saihestera bideratutako mekanismoak ezartzeko beharra errespetatu behar dute; hala, SEMen funtsekin finantzatutako inbertsioek Batasunaren edo beste administrazio batzuen beste programa eta tresna batzuen laguntzak jaso ahalko dituzte, betiere laguntza horrek kostu bera estaltzen ez badu eta, nolana ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamenduan (EB, Euratom) ezarritakoarekin bat etorriz. Erregelamendu hori, Batasuneko aurrekontu orokorreari aplikatzekoak diren finantza-arauei buruzkoa da (finantza-erregelamendua).

3.- Erakunde onuradunak funts gehigarriak ere jaso ahalko ditu, kasuan kasuko proiektuetan aurreikusitako jarduketak guztiei eusteko.

4.- Erakunde onuradunak hitzartutako jarduerak finantzatzeko jasotako funts guztien berri eman beharko du, Europar Batasunekoak izan edo beste batzuk izan, betiere finantzaketa bikoitzaren prebentzio-printzipioa errespetatuz.

15.- DATUEN BABESA

Alderdi sinatzaileak behartuta daude, datuen babesari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzera; 2016/679 Erregelamendua datu pertsonalen tratamenduan eta datu horien zirkulazio librean pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, eta Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorraren 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du; abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, berriz, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa da.

Erreferentziako proiektua amaitu ondoren ere, betebeharrak horiek indarrean jarraituko dute.

Hitzarmen honetan, Donostiako Udala izango da tratamenduaren arduraduna, aipatutako araudian ezarritako baldintzetan eta bertan ezarritako betebeharrak eta baldintzei jarraikiz.

16.- AZKENTZEA ETA SUNTSIARAZTEA

1.- Hitzarmenaren xede diren jarduketak bete direlako edo hitzarmena suntsiarazteko arrazoiren bat dagoelako azkenduko da.

2.- Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak hauek izango dira:

- a) Ezarritako indarraldia amaitzea.
- b) Snatzaile guztiak aho batez ados jartzea.
- c) Snatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.

Halakoetan, beste alderdiak errekerimendu bat jakinarazi ahalko dio bereak bete ez dituen alderdiari, hilabeteko epean bete ditzan bete gabekotzat jotako betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori Jarraipen Batzordeari jakinaraziko zaio.

Errekerimenduan azaldutako epea igaro eta ez betetzeak irauten badu, errekerimendua igorri zuen alderdiak beste alderdi sinatzaileari jakinaraziko dio badagoela hitzarmena suntsitzeko arrazoiak, eta hitzarmena suntsitua dagoela ulertuko da.

d) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko duen erabaki judizial batengatik.

e) Araudian jasotako aurrekoez bestelako edozein arrazoiengatik.

3.- Hala ere, hitzarmena suntsiarazteko edozein kausa jazotzen den unean jarduketaren bat abian bada, alderdiek, hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak hala proposatuta, hitzarmenarekin jarraitzea adostu ahalko dute alderdiek, harik eta jarduketa bukatu, justifikatu eta bertan jasotako klausulen arabera likidatu arte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

4.- Hitzarmena azkentzen bada erakunde onuradunak betebeharrak partzialki edo erabat bete ez dituelako, orduan Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saitetik jasotako ekarpen ekonomikoa itzuli egin beharko du.

17.- INDARRALDIA

1.- Hitzarmen honen indarraldia 2025eko ekainaren 30ean amaituko da.

2.- Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hura luzatzea (2026ko ekainaren 30eko gehieneko mugarekin, CIDren 221 mugarriak adierazten duen bezala) edo hura azkentzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 h) artikuluan xedatutakoaren arabera.

18.- ESKUM ENEKO JURISDIKZIOA

Hitzarmena administratiboa denez, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioak ebatziko ditu hitzarmen honen garapenean sortzen diren auzi-kontuak, bat etorruta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.g artikuluko aurreikuspenekin.

Eta, ados daudela erakusteko, hitzarmena sinatzen dute bi alderdiek.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko
sailburua

Donostiako Udaleko alkate-udalburua

JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ

ENEKO GOIA LASO

I. ERANSKINA

Adierazpen-ereduak

- A. Interes-gatazkarik eza
- B. Datuen lagapena eta tratamendua
- C. Zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoa

A. Interes-gatazkarik Ezaren Adierazpenaren eredia (IGEA)

Espedienteak:

Dirulaguntza.

Lehenago aipatutako dirulaguntzaren prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, sinatzaileak, espedienteak prestatu eta izapidetzeko prozesuan parte-hartzaile den/diren aldetik, honako hau adierazi nahi du/dute:

Lehenak. Hauek ezagutzen dituela:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBko finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua, «Interes-gatazkak» izenekoak, ezartzen duenez, «interes-gatazka egongo da funtzioak inpartzialki eta objektiboki betetzea kolokan badago familia, afektu, kidesasun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».

2. Sektore Publikoko Kontratuak buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehiaren distorsio oro saihestea, prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatzaile guztientzat tratua berdina dela bermatzeko.

3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea») ezartzen du prozeduran esku hartzetik abstenituko direla «*administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean*», zehazki, egoera hauetako batean:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; sozietate edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, erakunde edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego profesional berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritza.

c) Aurreko apartatuan aipaturiko pertsonaren batekin adiskidetasun mina edo etsaitasun agerikoa izatea.

d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko moduan aritzea.

e) Gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izatea.

Bigarrenena. Ez dagoela EBren Finantza-Erregelamenduaren 61.3 artikuluan interes-gatazkatzat sailkatzen diren egoeretako ezeinetan, eta ez dagoela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan ezartzen diren eta emakida/lizitazio-prozeduran eragina izan dezaketen abstenitzeko arrazoietakoa ezeinen mende.

Hirugarrena. Interes-gatazken egoera oro edo egoera hori eragin duen edo dezakeen abstentzio-kausa oro ebaluazio-batzordeari/kontratazio-organoari luzapenik gabe jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

Laugarrena. Badakit interes-gatazkarik ez daukadala adierazteko aurkeztu dudana agiria faltsua dela frogatzen bada, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina-, administrazio- eta justizia-ondorioak izango ditudala.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NANA)

B. Datuen tratamendu eta lagapenerako adierazpenaren eredia, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planeko (STEP) jarduketak betetzeari dagokionez

Ni, jauna/andrea (NAN:),
..... erakundearen (IFZ:; egoitza fiskala:) kontseilari delegatua/kudeatzailea naiz. Erakundea STEPeko baliabideekin finantzatzutako laguntzen onuraduna da, eta kontratista/azpikontratista modura parte hartzen du «Turismo Sektorearen Modernizazio eta Lehiakortasun Plana» 14. osagaian definitutako helburuak lortzeko behar diren jarduketak garatzen. Hala, adierazten dut araudi aplikagarria ezagutzen dudala, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduko 22. artikulua apartatu hauek:

1. 2. apartatuko d) letra: «Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan inbertsio-proiektuak eta erreformak egitera bideratutako neurriei dagozkien funtsen erabilera kontrolatu eta auditorietza egiteko, bilaketak egitea ahalbidetzen duen euskarri elektronikoko batean eta datu-base bakarrean biltzea datu kategoria harmonizatu hauek:

i. Funtsen azken hartzailearen izena;

ii. Kontratataren eta azpikontratataren izena, funtsen azken hartzailea botere adjudikatzaile bat denean, estatu-mailako edo Batasuneko kontratazio publikoaren arloko zuzenbidearekin bat etorritik;

iii. Funtsen hartzailearen edo kontratataren titular errealeko izen-abizenak eta jaiotegunak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 Zuzentarauaren (EB) 3. artikuluko 6. Puntuari jarraituz (26):

iv. Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan inbertsio-proiektuak eta erreformak egitera bideratutako neurrien zerrenda bat, neurrien finantzaketa publikoaren zenbateko osoa adierazita, eta mekanismoaren esparruan eta Batasunaren beste funts batzuetatik ordaindutako funtsen zenbatekoa adieraziz».

2. 3. apartatua: «Artikulu honetako 2. apartatuko d) letran aipatutako datu pertsonalak Batzordeak eta estatu kideek soilik erabiliko dituzte, 15. artikuluko 2. apartatuak eta 23.eko 1. apartatuak aipatutako akordioak aplikatzeari lotutako funtsen erabileraren kontrol-prozedurei eta aurrekontu-kudeaketa onartzei buruzko auditoria egiteko eta horretarako behar den denboran. Batzordeak kudeaketa onartzeko prozeduraren esparruan, bat etorritik EBFTren 319. artikuluekin, mekanismoa txostenak

aurkeztearen (finantza-informazioaren esparruan) eta kontuak modu integratuan ematearen mende egongo da (Finantza Erregelamenduaren 247. artikulua), eta, bereziki eta modu berezian, kudeaketaren eta errendimenduaren urteko txostenean».

Azaldutako esparru juridikoarekin bat etorritik, adierazi du datuen lagapena eta tratamendua onartzen dituela, berariaz aipatutako artikuluetan zerrendatutako helburuekin.

....., 202X(e)ko(a)ren ...(a)

Sin.

Kargua:

C. Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planeko (STEP) jarduketak egikaritzeari dagokion konpromiso-adierazpenaren eredu

Ni, jauna/andrea (NAN:.....),
..... erakundearen (IFZ:.....; egoitza fiskala:.....) organoaren titularra/kontseilari delegatua/kudeatzailea naiz. Erakundea STEPeko baliabideekin finantzatzutako laguntzen onuraduna da, eta kontratista/azpikontratista/mandatuaren hartzaile modura parte hartzen du «Turismo Sektorearen Modernizazio eta Lehiakortasun Plana» 14. osagaian definitutako helburuak lortzeko behar diren jarduketak garatzen. Hala, adierazten dut ordezkari naizen pertsonak/erakundeak arau juridiko, etiko eta moralen estandarrik zorrotzenak betetzeko konpromisoa duela, eta hark behar diren neurriak hartu dituela iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihesteko eta antzemateko, eta ez-betetzeak, halakorik balego, kasuan kasuko agintariei jakinaraztekoa.

Horrez gain, STEPen edukiari erreparatuz, plan horren esparruan garatutako jarduketak betetzean ingurumenari kalte adierazgarririk ez egiteko («DNSH» ingeleseko siglak, «do no significant harm») eta ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko konpromisoa hartzen du, eta adierazten du, orobat, ez duela finantzaketa bikoitzik eta ez duela estatu-laguntzen araubidearekiko bateraezintasun-arrisku ezagunik.

....., 202X(e)ko(a)ren ...(a)

Sin.

Kargua:

CONVENIO ENTRE LA ADMINISTRACION GENERAL DEL PAÍS VASCO, A TRAVÉS DEL DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO, Y EL AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN PARA LA EJECUCIÓN DEL PLAN DE SOSTENIBILIDAD TURÍSTICA EN DESTINO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN CORRESPONDIENTE AL PLAN TERRITORIAL DE SOSTENIBILIDAD TURÍSTICA EN DESTINO DE EUSKADI, FINANCIADO POR FONDOS DE LA UNIÓN EUROPEA-NEXT GENERATION EU

En ___ a ___ de ___ de 2022

REUNIDOS

De una parte, D. Javier Hurtado Domínguez, Consejero de Turismo, Comercio y Consumo, nombrado por Decreto 30/2020, de 7 de septiembre, del Lehendakari (BOPV 8 de septiembre de 2020), actuando en representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y autorizado para formalizar el presente Convenio por Acuerdo del Consejo de Gobierno de fecha 7 de junio de 2022.

De otra, D. Eneko Goia Laso Alcalde/Presidente del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, en representación de dicha entidad, facultada para suscribir el presente Convenio, en virtud de Acuerdo de Junta de Gobierno Local de fecha ___ de ___ de 2022 del cual se dará información al Pleno del Ayuntamiento.

Las partes se reconocen mutuamente, en la calidad con que cada una interviene, con capacidad legal necesaria para el otorgamiento de este Convenio y al efecto,

EXPONEN

PRIMERA. -

